**ERREPORTAJEA** IRIONDO ALTZARIAK 50 URTE NEGOZIOAN · **GEHIGARRIA** IÑAKI JAIORI ELKARRIZKETA
**KIROLA** C.D. ELGOIBAR TALDEEN AURKEZPENA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko urriaren 3a/XI. urtea/459. zkia



EUSKAL HERRIKO ARRAZA LIBREKO ARTZAI TXAKUR TXAPELKETA

## Artzain eta txakur onenak Aiastian

"ARTZAIAK ELKARREKIN BORROKAN, OTSOA INDARTU" (esaera zaharra)

# Ondo pasau Errosano jatxak!

ileapaincIegia
solarium
**fadek**
Errosario kalea, 35 behea - tel.: 943 74 26 92

*Maria Urizar*
*Ileapaindegia - Peluqueria*
*Solarium*
Errosario kalea. 9 - 1 - ezk.
Tel 943 74 44 89



Errosario, 12 Tel.: 943 74 35 55

LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANUEL EIZABE LOYOLA
TB • BIDEOA • HI-FI • DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 - Tel.: 943 74 00 54



MEKANIOSA
Errosario, 30
Tel 943 74 02 84

- Idazmakinen salmenta eta konponketa
- Multikopistak
- Fotokopiadorak
- Planoen birregileak
- Erloju industrialak
- Marrazketa materiala
- Informatika
- Faxa

**Dori**
*urdaitegia*
APARTEKO PRODUKTUAK
Errosario, 29 ☎ 943 71 .. 92

**GOROSTIZA**
Liburudenda
JOSTAILUAK
ESKOLAKO MATERIALA
OPARIAK
FOTOKOPIAK
PAPERTEGIA
Errosario, 16 ☎ 943 74 03 88

...RGI
Opariak
Elektrizitate instalakuntzak
Sukalderako tresneria
Errosario, 6 behea Tel.: 943 74 16 44

GABILONDU
**TABAKO DENDA**
Errosario, 2 - 943 74 16 38

**Boutique** *...*
GAZTEENTZAKO MODA
Errosario kalea. 25 Tel 943 74 23 02

GILTZAK ETA KONPONKETA
**MERINO**
Errosario. 11 behea
Tel 669 146 967
*Giltzen kopiak egiten ditugu*

KALITATEKO EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL
HARATEGIA-URDAITEGIA
Eusko Label
**ZIARDIX**
KALITATEA
Errosario kalea, 10 Tel.: 943 74 05 54

# URTE
# 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA
ELK ARTEA



## 29 GUREAN BAI esan zuten

1996ko urtarrilean Elgoibarko 51 elkarte eta entitatek GUREAN BAI esan zuten. Gurean Bai, elkarteetako funtzionamendua batez ere euskaraz izan zedin; *Gurean Bai,* antolatzen zituzten jardueretan euskara nagusi izateko; Gurean Bai, azken finean, elkarte eta erakundeak euskalduntzeko. 59 elkarteri aurkeztu genien hitzarmena eta 51k sinatu zuten hitzarmena edo konpromisoa. Elkarte bakoitzak bere konpromiso maila hartu zuen, guk aurkeztutako bietatik ondoen zetorkiena, hain zuzen ere.

Abel Irizarrek jardun du hasieratik proiektuko teknikari lanetan. Hasierako pausoak zelakoak izan ziren galdetuta, *"Jendian inplikaziva lortzeko, proiektua zertarako zan ondo esplikatzen ahalegindu nitzan; ixa egun osua pasatzen naban batzarretan".* Ikastetxeek, kirol eta kultur elkarteek, elizak eta beste hamaika elkarte eta erakundek sinatu zuten Gurean Bai· Hitzarmena, denek berdin erantzun ez bazuten ere. Abelen esanetan, *"Elkarte batzuk oso serixo hartu zittuen konpromisuak, eta, beste batzueri, berriz, kostau egin jakuen euren eginkizuna zein zan ulertzia eta barneratzia".*

Ez da batere lan erraza izan, baina gustura jardun dugu lanean. Zortzi urte luzez lanean jardun ostean, lortutako emaitzen gainean galdetuta, zera aitortu digu Abelek: *"GUREAN BAI erreferentzia bihurtu zan herrixan, jende askok deitzen zaban. Bestalde, langille profesionalak zakazen erakundietan, borondatezkuetan baiño enzaitza hobiak lortu genduzela uste dot".* Ez dugu guk nahi genuen guztia lortu baina egindakoa hor dago.

Eta hasiera guztiek beren amaiera izaten dutenez, Gurean Bai-Elkarteak ere ateak itxi zituen 2003ko apirilean. Zortzi urtean lan txukuna egin dugun sentsazioarekin, itxi ere.

*hnanol Larrañaga*



## Autoak herriko apaingarri gisa

Elgoibar. Urteko edozein egun igandea izan ezik. Goizeko 9:00etatik aurrera. Herriko erdigunea autoz beteta dago. Kaleak zeharkatzeko aparteko trebezia behar da eta hobe denboraz ongi bazabiltza, bidean aurkituko dituzun oztopoak gainditzen makina bat asti galduko baituzu. Furgoneta edo kamioi txiki bati aparkaturik dagoen kotxe baten ondotik pasatzea tokatzen zaionean, hori bai komeria! Edo auto bat segika duzunean eta kale erdia aparkaturiko autoz beteta baldin badago, zorteduna izango zara kotxeak aurrera egin dezan bide bazterrean tarte edo lekutxoren bat aurkitzen baduzu. Hori bai presioa! Eta kasu hauetan, gainera, jendeari pazientzia agortzen zaiola igartzen zaio aurpegietan. Horixe bakarrik behar genuen!

Egoera hauek ez dira Elgoibarren bakarrik gertatzen. Gaur egun, autoen erabilera, batzutan, tamalgarria da. Gehiegi abusatzen da. Bai errekauak, erosketak edota beste zereginetarako autoa hartzea ezinbestekoa egin zaigu. Ohitu egin gara eta ez gara ohartzen autoaren beharrik gabe egin daitezkeen gauzak direnik. Agian, ez ditut jendearen beharrak eta arrazoiak ezagutzen, baina ziurrenik, kasu askotan eragotzi daitezke. Azpimarratzekoa da, gaur egun auto asko daudela herrietan eta hauen eragin zuzenak oso nabariak

Baina nahiz eta auto ugari egon eta herria oso estua izan, autoaren limitazioak jakin beharko lituzke jendeak. Azken finean, herria zoroetxe bat bihurtzen ari da autoak kaleen jabe egiten diren bakoitzean.

Gobernuek, erakunde publikoek eta pribatuek zerikusi handia dute, eta erabiltzaileak ere, garraio publikoaren erabileraren kontzientziazioan, denek atxiki diezaiogun.

Garraio publikoaren propaganda eta informazioa oso argia, zuzena eta pertsonala izan behar da herritar bakoitzarentzat. Ezinbestekoa da autoaren erabilera murriztea, kutsadura, zarata eta gure bizimoduen erritmoa lasaitzeko.

Jokin Martinez

Kexak
motz MotZ .......................................... 8
gehigarria .......................................... 13
kiRolAk .......................................... 20
aGenda .......................................... 24

2003-X-3

## JOSEBA AZKARRAGAK DIO: ARKAITZ OTAZUA, GUDARI

Barregarria baina era berean penagarria eta lamentagarria da Eusko Jaurlaritzaren arduradunek pasa den astean Herreran argitu gabeko operazio ilun batetan Ertzaintzak hildako gaztearen inguruan egindako deklarazioak entzutea. Horrela, Joseba Azkarragak Justizia Sailburua eta EA-ko kideak hildakoaren adina jakin bezain laister, hau gudaria ez zela adierazi zuen. Gudariak Unibertsitatean formatzen diren ikasleak direla, edo enpresetan lanean daudenak. Beti ETAkideak marjinalak edo frakasatutako jendea bezala aurkeztuz. Ez dakit ze aurpegi jarri duen Zuzenbide ikasketak amaitu ez dituen Joseba Azkarraga honek jakin izan duenean Ertzaintzak hildako gaztea 5 hizkuntza jakiteaz gain, Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidean Lizentziatu berria zela eta aurtengo kurtsoan Politika Juridikoaren Master bat egin nahi zuela. Sasi-politiko hauek pentsatu beharko lukete, beren ustez Unibertsitatean ikasteagatik gudaria den gazte honek, jaleoetan sartu gabe bizitzan eroso bizi zatekeen gazte honek, zergatik armak hartzeko aukera egin duen XXI. mendean eta Europan. Ondo jakin dezatela ETAkideen artean ikasleak, lizentziatuak, igeltseroak, iturginak eta lanbide guztietako boluntarioak daude eta egon direla. Eta beren herrian ondo integratutako pertsona guzti hauen ezaugarri komuna beren Herriaren eskubideen defentsa, beren hizkuntza, herri mugimendua eta giza erreibindikazioekiko konpromezua dala. Eta horixe da hain zuzen Gasteizko Gobernuan dauden alderdien militanteek ez dutena.

Juan Karlos Markos.

## ISUNA? ETA LARUNBATETAN?

Osteguna, gaueko hamaikak eta laurden: Urasandira iritsi naiz, gaur ere, autoa aparkatzeko arazoak. Aparkaleku guztiak beteta.

Gorantz noa, ezer ere ez. Beherantz, dena beteta. Auto batzuk espaloi gainean daude. Iturri ondoko espaloia oso zabala da, beraz, autoa bertan uztea erabaki dut. Errepidea guztiz libre gelditzen da, eta espaloian pasabide zabala. Gainera, bihar goizeko zazpietarako autoa kenduko dut, ez dut uste bitartean inori trabarik egingo dionik.

Ostirala, goizeko zazpiak eta hamar: Kaka! Isuna jarri didate! Atzo gaueko hamabietan!

Larunbata, gaueko hamarrak: Kaletik oinez etxerantz noa. Zubia bukatu eta... 1, 2, 3... 19.

Zer? Hemeretzi auto espaloi gainean! Bakar batek ere ez dauka isunik! Noski, larunbata da. Gaur dena libre da. Kakan txiza edo kaka egitea, dendetako kristalak kolpatzea, telefono kabinak izorratzea, zakar kontenedoreak errepide erdian jartzea, tabernetako aulkiak errekara botatzea, semaforoak astintzea... eta noski, edozein lekutan eta edonola autoa aparkatzea. Hala ere, ez dago inorentzako isunik. Gaur ez, badirudi udaltzainek jai hartu dutela. Beno, barkatu, jai ez, Madalako parkean daude bi eta beste bi Melitongo zubian. Zertan? Ez dakigu. Isunak jartzen ez behintzat.

Gauzak horrela, guk, herritarrok, zergak ordaintzen ditugunok, zergatik ordaindu behar ditugu isunak? Ez dakit zuek, baina nik ez daukat bat bera ere ordaintzeko asmorik. Ez behintzat larunbatetan autoak beren lekuan aparkatuta ikusten ez ditudan bitartean.

B.A.- 72.580.873A

# Urruzunoren begi ezkutua

## Gure status berria



E.O. 0001 egunean hasi eta E.O. 0778 egunerako bukatua genuen gure harresi. kuttuna. Orduarteko harreman ekonomikoen soka aizkorakada bortitz batekin eten genuen, ez dugu merkataritzarik nahi esanez.

Autopistak, trenbideak eta bestelako komunikabide sare guztien sarreratan, kontrolak ezarri genituen, eta ibilgailuak barrura sartzeko, kateekin zebiltzan egurrezko ate sendoak jaitsiz, guk ere, garai zaharragoen nostaljia erakusten bagenekien.

Alde egitera gonbidatu, kanporatu, gurera makurtarazi, ezberdintasun oro suntsitu; errealitate berdinaren lau izen, gure odola ez nahasteko. Baztertzaile sena harro dastatzea geneukan. Erdal liburu guztiak herriko plazatan erre genituen.

Legea mugiezina izango zela argi uzteko, harri sakratu batean izkiriatu genuen, eta zaindutako gaztelu batean giltzapetu.

Horrenbeste desiatutakoa esku artean geneukan, orri zuri bat nahi bezala garatzeko. Gure buruaren jabe ginen.

Mikel Artola

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
s 9437441 12
Publizitatea:
s 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comfbarren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

Er,
ELGOI8ARK0 IZARRA

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA J810ne UnallUe GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZA1LEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEOE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko faurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aklundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa
xJri esker

1DANOBAT
nIAOUINPS .1,11.1ENT4
SSGOITI 4,■ EITARTA
NOBAY
GRUPO DANOBAT

# (5 KEXAK

♦ Herritar batek esan digunez, oso esperientzia txarra izan zuen kartelak kentzen dituzten langileekin: "Ondo dago ormak garbi mantentzeko kartelak kentzea, baina oraindik pasatu gabe dauden ekitaldienak kentzea ez zait ondo iruditzen. Gizon bat Plaza Handiko kartel guztiak kentzen ari zen. Pasatu gabe zeuden ekitaldienak ez kentzeko esan nion, eta *yo quito lo que se me pone en el rabo* erantzun zidan. Udaletxera joan nintzen, eta enpresa subkontratatu bateko langileak zirela erantzun zidaten. Hala ere, zerbait egin dezaketela uste dut".



Herritar batzuk esan digutenez, Pedro Muguruza Etorbidean, San Lazaro egoitza eta Herriko Antzokiaren artean karpa bat jarri dute, eta egoitzako bizilagunek ez daukate non pasiatu: "San Lazaro Egoitzako bizilagunek ingurune honetan pasiatzen dute. eta orain ez daukate lekurik".



* Neska gazte batek, Merkatu Plaza azpian aparkatzen duten kotxeak traba handia egiten dutela esan digu: "Komun publikoak bertan daude, eta sarritan umearen kotxearekin joan behar izaten dugu, eta ez da pasatzeko lekurik eta modurik egoten. Ezinduentzako ere arazoa da, gurpildun aulkia ez baita kotxe artean kabitzen. Honez gain zabor poltsekin pasatzea ere oso zaila da".

\+ Emakume batek esan digunez, joan zen larunbatean, irailaren 27an, arazo bat zeukan eta Udaltzaingora deitu zuen konpontzen laguntzeko, baina ez zen inor azaldu laguntzera: "Goizeko 8:10ean deitu nuen arazo bat neukala eta helbide zehatz batetara azkar etor zitezen eskatuz. Goiz guztia zain egon ostean ez ziren agertu. Zertarako daude udaltzainak Elgoibarren?"






*ATZERA BFGIRATU ETA DENBORA OHARKABEAN PASA77EN DELA KONTURATZEN GARA SARRITAN ARGAZK1ZAHARRAK IKUSI, ETA ASPALDIKO MILA OR011/APEN ETORTZEN ZAIZK1GU GOGORA, ATZO BIZI /ZAN BAGEN1TU BEZALA. BAINA ONERAKO EDO TXARRERAKO, DENBORA EZ DA GELDITZEN. IRIONDO FAMILIAKOEK 50 URTE DARA,MA77ATE ALTZARIEKIN' LANTAN, ETA ELGOIBARTAR GUZTIEK1N OSPATU NA1 11 Dl 1 UZTE URREZKO F7TFIAK. 7 SARI ZOZKETATUKO DITUZTE ETAIRABAZLEEK EROSKETA TXEKE BANA JASOKO DUTF. DENDAN BERTAN GASTATZEKO. ZOZKETA ABENDUAREN 9AN EGINGO DA. ETA DENDARA JOATEN DIREN GUZT1EK JASOKO DUTE ZOZKETARAKO TXARTELA. IRIO,NDOTARREKIN SO1A.SEAN JARDUN DUGU, ETA 50 URTEKO 1STORIOA KONTATU D1GUTE.*

## NEG0710AREN HASIERA

Julian Iriondo eta Kontxa Azkue 1953. urtean ezkondu ziren, eta urte berean jarri zuten martxan Iriondo altzari denda: "1951. urtian sutia egon zan, eta lokal dana erre jakun. Orduan negoziva ipini zeinkela pentsau gendun, eta mueblerixia zabaldu gendun", esan digu Julianek.

Hala ere, altzariekiko tradizioa lehenagotik datorkio familiari: "Nere aitxa ebanistia zan. Nik 8 urte nitxuala hil zan, 1928xan. Ondiokan umia nitzan, eta ez nuan uste bere bidetik segitxuko nabanik. Urte askuan mekanikan egon nitzan lanian. Kasualidadez zabaldu gendun dendia, eta dagoeneko 50 urte pasau dia".



*Etxebizitza erre ostean ireki zuten denda.*

Julianek, ordea, ez zituen altzariak eskuz egiten: "Guk erosi eta saldu bakarrik eitxen genduan. Balmasedatik ekartzen zizkiguten gehienak".

**"Muebliak karretiliakin entregatzen genduzen eta kanposantuko aldapia ixotzia oso gogorra eitxen zan"**
Julian Iriondo

## ARAZO GOGORMA RNANTZIAZIOA

Hasierako urteak oso gogorrak izan zirela kontatu digute. Honela gogoratzen ditu Kontxak: "Dendia zabaldu ostian ere, Julianek tailarrian eitxen zaban lana, eta handik urtetzen zanian etortzen zan dendara mueblien entregak eitxera. Zapatuetan ere gabeko lOak arte lana eitxen gendun". 1953an ez zegoen kotxerik, eta entrega guztiak karretilarekin egiten zituzten: "Sigmako etxiak izan zian amueblau genduzen lelenak, eta kanposantuko aldapia karretiliakin ixotzia oso gogorra eitxen zan". 1959. urte inguruan erosi zuten lehenengo autoa, Kontxak matrikula ere gogoan dauka: "SS-38325 matrikuladun DKV bat izan zan geure lelengo kotxia".

Dena dela, arazo gogorrena finantziazioa zen. Garai hartan kanpotar asko etorri ziren Elgoibarrera bizitzera, eta ez zeukaten dirurik. Hala ere, jende zintzoa zela gogoratzen du Julianek, eta berak azaldu digu nola moldatzen ziren kobraketak egiteko: "Etxia erositxakuan koltxoi bila etortzen zian dendara. 400 pezeta balixo zitxuan borrazko koltxoia erosten zeben. Bankuek orduan ez zeben kreditorik ematen, eta geuk finantziatzen genduan erosketia. Astero-astero kobratzen zeben jornala, eta ahal zabenian etortzen zian pagatzera". Zenbat eta gehiago saldu, zor handiagoa egiten zuten hornitzaileekin: "1,35 metroko koltxoia, somierra, bi mesanotxe, komodina, eta armarixua pertxekin 2900 pezetatan saltzen gendun, eta gainera erregalua ematen gendun. Erositxakua pagatzen zeben, baina denbora luzera, eta guk fabrikantieri pagau ein bihar genien. Askotan itxo eitxen ginan".

## ALTZARI DERRIA BAINO GEHIAGO

Hasiera hartan denetarik saltzen zuten: "Neri beti gustau izan jata gauza berrixak ekartzia, eta telebisiva hasi zanian hamen saltzen gendun. Iberia markako telebisivak zian, oso eskasak, segitxuan estropeatzen zian. Camping-erako butano txikixak ere saltzen genduzen. Jendiak eskatu eitxen zaban, eta ekarri eitxen gendun. Ondiokan etxian badaude holako butaniluak. Maletak eta beste gauza mordua eukitzen gendun dendan".

# 1Itzariak

# URTIE IFTMEAK JAN7TEN



**7ulian griondo garate**
Ebanista

Gizon hau izan zen Inondo familian egurra lantzen hasi zen lehenengoa. Ebanista zen, hau da, egurra landuz eskuz egiten zituen altzariak. Oso gazte hasi zen lanean. eta 63 urte zituela hil zen 1 928an Bere semeak 8 urte besterik ez zituen aita hil zenean, baina oraindik gogoan dauzka aitarekin makinak engrasatzera joaten zeneko irudiak: ¯Dendtan azpiko sotuan zauzkan aitxak lanerako makinak. Motor haundi bat eta polea batekin eindako makinak zian, eta noizian behin hara juten ginan makiniari olixua ematera

Urtebete inguru behar izaten zen lehen eskuz altzari bat egiteko. egungo mekanizazioari esker prozesua ikaragarri azkartu da: "Nere aitxak eitxen zitxuan bezelako muebliak gaur egun ezingo zian saldu. Holako mueble batek ez daka prezionk, ezingo zian pagau". Julianek kontatu digunez. oraindik zenbait etxetan badira bere aitak eginiko altzariak: "Muebltak eruatera juten nintzanian askotan aitxak eindako muebliak erakusten zien. eta ilusio haundixa eitxen Elgoibarko elizan ere Julianek egindako altzariak ikus daitezke gaur egun: ¯Elizako sakristixan nere aitxak eindako armarixo batzuk daude eta ondiokan emozionau eitxen naiz elizara juten natzenian-.

## ALABA ETA SEMEAREN ERRELEBOA

Gaur egun Arrate eta Julenek daramate negozioa, eta 1995. urtetik Arantxa Iruretagoienak laguntzen die. Igancio anaia finantziazio aholkularia da. Julenek enpresaritza ikasketak egin zituen, eta bera arduratzen da dendako diru kontuetaz. Arratek dekorazioa ikasi zuen, eta 22 urte inguru daramatza lan honetan. Dendan lanean hasi zenean, itxura aldaketa garrantzitsua eman zion negozioari: "Lehen ez zauan esposiziorik. Dendia mueble almazen bat zan". Arratek aldaketa baten beharra ikusten zuen, eta poliki-poliki hasi zen beherapenetan saltzen. Motel zihoan asuntoa eta 83ko uholdeak iritsi ziren. Orduan aprobetxatu zuen mueble zahar guztiak atera, eta denda gaur egun dagoen bezala jartzeko.

Erosteko modua zeharo desberdina da. Gaur egunean etxebizitza dekoratzea lehen baino askoz konplikatuagoa da. Kontxak azaldu digu lehen nola erosten ziren altzariak: "Eroslia dendan sartu eta gustatzen jakon mueblia elejitzen zaban. Preziva eta tamainua zian inportantienak, kuartuan kabitzen bazan haura erosten zeben". Arratek esan digunez, honelako batzuk azaltzen dira oraindik dendan, baina orokorrean, berak etxea ikusi eta aholkuak ematen dizkio erosleari.



*julen, Arrate eta Arantxa dendako erakusketan.*

# Bi eibartar gazte larri zauritu ziren larunbatean, irailaren 27an tren geltokian izandako istripuan

## Alkateak arazo honekin zerikusia duten sektore guztiei ardurak hartzeko deialdia egin die

1 eta 15 urteko bi eibartar gazte larri zauritu ziren, joan zen larunbatean, irailaren 27an Elgoibarko tren geltokian izan zen istripuan. Gaueko 22:05ean 300 pertsona inguru zeuden Eibarrerako trenaren zain. Jendearen mugimenduak zirela-eta. Euskotren konpainiako trena geltokira sartzen ari zen unean andenetik behera erori ziren Eibarko bi gazteak eta ondorioz zauri larriak dituzte..

Gurutze Gorrikoek Mendaroko ospitalera eraman zituzten bi gazteak. Batak pelbisa hautsia zuen, mokorra zaurituta eta makina bat ubeldura zeuzkan gorputz osoan. Besteak bederatzi saihets hautsi zituen eta hainbat zauri eta ubeldura zeuzkan mokorrean. Zaurien larritasuna zela eta, goizaldeko ordu biak aldera, Donostiako ospitalera eraman zituzten bi gazteak eta Zainketa Berezien Sailean ingresatu zituzten. Medikuek azaldu zutenez, zauriak larriak izan arren, bi gazteen egoera egonkorra da.




*Artxiboko irudia. 94ko argazkia. Aspalditik dator larunbatetako arazoa.*

**Alkatearen deialdia**

Marivi Agirregomezkortak astelehenean bisitatu zituen Donostian ingresatuta dauden bi gazteak. Istripu honen aurrean Elgoibarko alkateak bere kezka adierazi du, eta arazo honen aurrean erantzukizuna daukaten sektore guztiei ardurak hartzeko deialdia egin die. Aspalditik datorren arazo honi konponbidea eman nahian inguruko herrietako alkateekin, ostalaritzako eta merkataritzako sektoreekin, ikasketa zentroekin eta guraso eta Auzoetako Elkarteekin hainbat gestiori ekiteko asmoa erakutsi zuen. Marivi Agirregomezkortaren esanetan, arazoa ez dagokio Elgoibarri bakarrik: "Gure herrira etortzen diren gazte gehienak 14 eta 17 urte bitartekoak dira. Gehienak inguruetako herrietatik etortzen dira, eta Elgoibar dibertsio gune gisa daukaten arren, sarritan jarrera desegokiak hartzen dituzte. Arazoa ez du Elgoibarko Udalak soilik konpondu behar. Arlo guztietatik konpondu beharreko arazoa da, bai arlo territorialetatik eta baita autonomikoetatik ere. Udalaren mugak gainditzen dituen arazoa da".

# Oskar Palomok irabazi zuen XXIX. Deba Bailarako Perretxiko Lehiaketa

## 26 taldek hartu zuten parte eta perretxiko mota ugari aurkeztu ziren



Karakate Mikologia Elkarteak antolatuta Deba Bailarako XXIX. Perretxiko Lehiaketa izan zen joan zen igandean, irailaren 28an. 15 urtetik beherako gazteek osatutako 26 taldek hartu zuten parte lehiaketan, eta Oskar Palomok irabazi zuen. Guztira 64 perretxiko mota aurkeztu zituen, eta 665 punturekin, lehenengo postua eskuratu zuen.

Epaimahaiak sari bereziak eman zituen Amanita Phalloides eta Entoloma Sinuatum perretxiko sortarik onenentzat. Lehenengo sari berezia Imanol Ansola eta Asier Agirregomezkortak osatutako taldeak jaso zuen, eta bigarrengoa, Ibai Oiarzabalentzat izan zen.

Aurtengo edizioan partaidetza jaitsi egin den arren (iaz 37 taldek hartu zuten parte), antolatzaileak oso gustura agertu dira perretxikoen kalitatearekin. Karakate Mikologia Elkartekoen hitzetan, "perretxiko kantitate gutxi izan da aurtengoan, baina mota desberdin asko aurkeztu dira. Maila ona erakutsi dute parte hartu duten gaztetxoek".

Bestalde, Bernabe Mujika Saria Aranzadi Elkarteko Xabier Laskibar tolosarrari eman zioten. Antolatzaileek esan zutenez, "hutsik egin gabe, urtero-urtero etorri izan da Elgoibarko perretxiko lehiaketara, eta bere jarrera eskertu nahi izan dugu".

# Goitek enpresa elgoibartarrak Estatuko Spec enpresarekin elkarlanerako akordioa sinatu du

Goitek eta Spec enpresek elkarlanerako akordioa sinatu zuten irailaren 23an. Helburua bezeroari datu bilketan, produkzio kontrolean eta giza baliabideen alorrean ahalik eta erantzun zabalena ematea da. Elkarlan honekin, Spec enpresak dituen teknologia handiko produktuak, Goitek enpresak eskaintzen dituen hobekuntzarako metodoekin uztartuta emango zaizkio bezeroari. Akordioaren ondorioz bi enpresek erabiltzen dituzten sistemak batuko dira, Spec Manager sistema alde batetik, eta Goitek enpresak darabilen Teknet sistema bestetik.

Spec enpresa 197San sortu zen. Kapital espainola dauka, eta Estatuko hiriburu garrantzitsuenetan egoitzak izateaz gain, Argentina, Txile, Tunez eta Marokon ere badauzka, eta produktu teknologikoak diseinatzeko I+D departamentu garrantzitsua du.

Goitek enpresa elgoibartarra, bestalde, 1990ean sortu zen Tekniker eta Fatronik zentro teknologikoen ekimenez. Merkatu espainiar eta latinoamerikarrean murgiltzen da, eta automozio, aeronautika edota arte grafikoen sektoreetako enpresekin ere lan egiten du.




# Jon Etxabe elgoibartarra UZEIko lehendakari izendatu dute



UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak Ohiko Batzar Orokorra eta Batzar Orokor Berezia egin zituen ekainaren 14an. Estatutuen arabera lehendakaria aldatzea tokatzen zen, eta Jon Etxabe elgoibartarra aukeratu zuten. Bere hitzetan, "beti izan dut euskara bultzatzeko kezka, baina nire formazioa ez da linguistikoa eta ez nuen espero, sorpresa bat izan da niretzat".

Jon Etxabe abokatua, eta Gipuzkoako Abokatu Elkargoko Euskara Batzordeko kide da. Bestalde, Nazioarteko Zuzenbide Masterra du (Bruselako Unibertsitate Librean), eta Europako Zuzenbidean Lizentziaduna da (Lovainako Unibertsitatean). Honetaz gain, Europa Elkarteko Batzordean, Luxenburgoko Terminologia eta Aplikazio Informatikoetarako Dibisioan lan egin zuen, eta "Glosarium Fishing Gear" (Arrantzako Tresnen Glosarioa) liburuaren egileetako bat da. Erronka bezala hartu du lehendakari postua: "Nire nahia Europako esperientzia UZEIri trasladatzea da; berriro ere Europa mailako proiektuetan sartu eta gure hizkuntza Europako gainontzekoen maila berean jartzea".

# Ertzaintzak Iñaki Jaioren omenaldia eragotzi zuen

19 urtez kartzelan egon ondoren, irailaren lln askatu zuten Iñaki Jaio. Joan zen larunbatean, irailaren 27an omenaldia egin nahi izan zioten herritarrek, baina ertzainek ekitaldia eragotzi zuten. Omenaldia egiteko baimenik ez zeukaten arren, ekitaldia antolatzea erabaki zuten. Eguerdiko 12:00etan zen hitzordua Plaza Handian, baina orduarako ertzainen hiruzpalau furgoneta zeuden bertan. Herritar ugari gerturatu zen plazara, eta ertzainak beraien kontra kargatzen hasi ziren. Istiluen ondorioz hiru lagun atxilotu zituzten; Jaioren iloba, Juan Karlos Marcos eta Iñaki Odriozola. Eguerdi alderako aske utzi zituzten. Dena dela, omenaldiarekin jarraitzea erabaki zuten, eta 160 lagun inguru bildu zituen herri bazkaria egin zuten.



## Azken egunotan ikusi denez, Aita Santuak gero eta osasun makalagoa dauka

# DAGOEN MODUAN EGONDA, KARGUA LAGA BEHARKO AL LUKE AITA SANTUAK?



### FERNANDO SUAREZ

**56 urte, langabetua**

Bai. Figura garrantzitsua da, eta bere egoera penagarria da. Ez dago postu hori betetzeko moduan. Beraiek beste lege bat daukate, baina beste ofizio guztietan bezala erreleboa beharrezkoa da.

### FERMIN ARCE

**47 urte, mekanikoa**

Bai, aspaldi iritsi zitzaion erretiratzeko ordua. Zaharren egoitza batean edo profesionalek zainduta egon beharko luke. Elizaren errepresentazio txarra da. Gotzai gazte mordoa dago bere lekua betetzeko moduan.





### FERNANDO CALVO

**36 urte, komertziala**

Nere ustez Aita Santuaren kargua soberan dago. Ez bera, eta ez beste inor ez da behar postu hori betetzeko. Bere boterea gehiegizkoa da, eta garai honetan lekuz kanpo dago Aita Santua.

### MARIA ANGELES ZABALA

**40 urte, etxekoandrea**

Bai, telebistan ikusi dut gaur, eta ezinean dago. Pena ematen du. Daukan karguak pisu handia dauka gizartean, eta itxura ona eman beharko luke. Erretiratzeko ordua iritsi zaio.





### BEGONA ARZUAGA

**40 urte, argazki irakaslea**

Bai, nere ustez erreleboa behar du. Ez dago ondo, Alzheimer-a du, eta burua oso gaizki dauka. Gaur agertu da telebistan jende aurrean, eta oso itxura txarra ematen du.

### EDURNE ZABALETA

**76 urte, etxekoandrea**

Hil arte segitxu biharko dau, legiak hori esaten dau, eta bete ein bihar dala uste dot. Ez dao ondo, eta kanbixua biharrezkua da, baina Eliziak lege hori baldin badauka, errespetau ein bihar da.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
A ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN ‘Yoi OEKO BEHERAPENA
elam otat~tm teoulaa 16 nte dete azetitetil eta
aatmew witalata temite« unte dete awnetie

ARRAÑA GA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

# nola ALDATU diren gauzak!

**1964.** urteko argazkia dugu hau. Begira nolakoa zen gure herria garai hartan! Eliza berdin-berdin ageri bazaigu ere, gainontzekoa zeharo aldatuta ikusten dugu. Errosario kaleko etxebizitza batzuk, errekara ematen zuen miradore ederrak zituzten. Erreka bera ere, garbi-garbi zegoen, eta jendeak Deba ibaian bainua hartzeko ohitura zuen. Frontoiaren atzean kartzela zegoen, eta baita jende askok erabiltzen zuen komun publikoa ere bai. Garai hartan asko jokatzen zen esku pilotan frontoian.
Argazkiaren atzeko partean San Roke auzoa hutsik ageri zaigu. Eskola mekanikoa bertan da dagoeneko, baina gainontzeko etxebizitza guztiak falta dira. Argazkiaren erdi-erdian ikusten dugun edifizioa Elgoibarko forja izandakoa da. Dudarik gabe, beste garai batzuk ziren.



**2003.** urteko argazki honetan denbora ez dela alperrik pasatu konturatzen gara. Begira nolako edertasuna ageri zaigun gaur egungo argazkian! San Roke auzoa etxebizitzaz beteta dago, eta Herri Institutua ere bertan eraiki dute. Asko hazi da auzo hau, eta mugimendu handiko ingurunea da. Taberna eta denda ugari ireki dituzte bertan, eta Mintxetako kirolgunea ere ingurune horretan dago. Futbol eta korrikarako toki aproposa da, eta mota guztietako jendea biltzen da bertan. Orain, igerileku irekiak egin dituzte, eta udan jendez gainezka egoten dira.
Ikus dezakegun bezala, frontoi atzeko komuna jadanik ez dago, eta orain Santa Ana kalerako pasabidea egin dute. Deba ibaia ez dago lehen bezain garbi, baina lanean dihardute garbitasun hura berreskuratzeko.

Juanito Gorostiza




**AILBERIDI**
ERREKADISTA ☎ 609 264 705
**ELGOIBAR - DONOSTIA** (enpresa eta partikularrentzako)
BILKETAK
- Paketeak
- Sobreak
- Gestoria
- Komertzioa

GESTIOAK
- Ogasuna
- Diputazioa
- Trafikoa
- Merkataritzako - ganbera
- Merkataritzako erregistroa

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 • ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
HARTFORD ASEGURUAK

# IRAILA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elektronikora.

## HILDAKOAK

Encarnacion Elortegi,
94 urte, irailak 1

RosarioCaceres,
57 urte. irailak 5

Clara Beristain,
78 urte, irailak 6

Luis Etxaniz,
73 urte, irailak 8

Maria Luisa Elorza,
83 urte, irailak 10

Anuncia Quintas,
74 urte, irailak 10

Vicente Iriondo Uncilla,
82 urte, irailak 20

## EKONTZAK

Juan Carlos Lago eta Zuriñe Zangitu,
irailak 6

Jon Gabilondo eta Ane Leiaristi,
irailak 13

Jon Iriondo eta Miren Igarza,
irailak 27

Mikel Oriederra eta Ainara Gonzalez,
irailak 27

## JAIOTAKOAK



Janire Egaña Vela
Irailak 4
Jon Iñaki eta Maria del Carmen



Unai Agirre Palau
Irailak 23
Carlos eta Zoila

Gabriel Plaza Dacosta
Irailak 9
Gabriel eta Rosa Maria

Nora Idueta Albizu
Irailak 15
Andoni eta Mirari

Ibon Gomez Escobal
Irailak 18
Ibon eta Maria Belen


ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK • TRASLADOAK .KOROAK*



NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

BARREN

ASTEKARIA

2005ko urria/XI. urtea/459. zkia

# ElkarrizkEta



**19 URTE. IÑAKI JAIO ELGOIBARTARRAK KARTZELAN PASA DITUEN URTEAK DIRA. BATZUEK GOGOAN IZANGO DUZUE ETAKO KIDE IZATEAGATIK GUARDIA ZIBILAK ATXILOTU ZUEN EGUNA, BESTE ASKOK, GAZTEENEK BATEZ ERE, BERE AURPEGIAREN ARGAZKIA EZAGUTUKO DUZUE. TXOSNAREN BATEN, MANIFESTALDIREN BATEN EDO KARTELEN BATEAN IKUSIKO ZENUTEN ZIURRENIK. BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAN LEHEN ELGOIBATARRA ERE IZAN DA BEHIN BAINO GEHIAGOTAN, BERE IZENAREKIN KORRIKA EGITEN BAITZUEN ELGOIBARTAR BATEK. LAU PARETEN ARTEAN ZEGOEN BENETAKO IÑAKIre JAIO, ORDEA. 19 URTEKO "PSIKOLOGIAKO" KURTSOA E?1:140 DUELA KARTZELAN AITORTU DIGU.**

## Iñaki J'aio

" EUSKAL HERRIA MAITE DUTEN DENEN ARTEKO ELKARRIZKETA DA IRTENBIDEA"

1984KO IRAILAREN 27AN
ATXILOTU ZUTEN IÑAKI JAIO
BUSTINDUI. ETAKO KIDE
IZATEAGATIK ATXILOTU
ZUTEN 26 URTE ZITUELA. 18
URT A 10 HILABETE
KAT Z -KARTZELA PASA
OST , PASA DEN
IRAI EN I IN ASKATU
ZUT KARTZELAKO
EGONALDIAZ, EGUNGO
EGOERA POLTIKOAZ ETA
BERE ETOKIZUNAZ MINTZATU
GARA IÑAKIREKIN.

# Iñaki **Jaio**

## "19 urteko "psikolo,



**Gogoan al daukazu atxilotu zintuzten eguna?**
Dudarik gabe, txakurren erasoa ez dut sekula ahaztuko.

**Zenbat kartzelatatik pasa zara?**
Basurtuko ospitale zibila, Carabanchel-eko ospitalea, Gregorio Marañon ospitalea, Alcala-Meco. Mancha-ko Herrera, Burgos, Teruel, Huesca, Zaragoza.

I **Zer moduz zaude? Antsietaterik bai?**
Ondo, askatasuna lortu baitut azkenik. Denbora beharko dut martxan jartzeko eta bizimodu berrira ohitzeko.

**19 urte asko dira. Zer galdu duzu 19 urteotan?**
Galtzea ez nuke esango hitz zuzenena denik, bakoitzak bere bizimodua egin beharra eduki du eta nirea hau izan da, eta kito. Bestalde irabazi ditut, esaterako, burkide oso onak.

I **Kartzelatik irteteko eguna gerturatu ahala, nola bizi izan zenituen azken egunak?**
Hasierako egunak baino hobeagoak izan ziren noski, jakinda irteteko eguna berehala iritsiko zela. Hala ere, barruan lagatako nire burkideak dauzkat beti gogoan.

**Zer zen kanpora irtetean egitea desiratzen zenuen lehen gauza?**
Euskal Herrira etorri, egon, eta arnasa hartu.

I **Asko aldatu al da Elgoibar?**
Esango nuke asko aldatu dela parte batean, auzoetan batez ere, baina ez alde zaharra.

**Eta Iñaki Jaio?**
Lehengo berdina naizela esango nuke, baina esperientzia gehiagorekin, momentu honetan dudan adinagatik eta kartzelan izan dudan bizimoduarengatik.

**Ikusitakoak ikusirik eta bizitakoak bizi ostean zure iraganetik zerbait aldatuko al enuke?**
Aldatzekotan, konpromiso handiagoa hartu ez izana.

**Zerbaitetaz damutzen al zara?**
Ezezko borobila.

I **Zein izan dira kartzelaratuta egon zaren denboraldiko unerik zailenak?**
Barrutik ikusita larriena, bada, Euskal Herriari egindako erasoei behar bezala lagundu ezin izana.

# jako" kurtsoa egin dut kartzelan"

**I Egon al da une pozgarririk?**
Nire kide bat askatzen zuten bakoitzean poz handia sentitzen nuen.

**/ Nolakoa da kartzelako egun normal bat?**
Pertsona bakoitzak bere dinamika dauka. Nik esaterako, liburu artean, nire osasuna dela eta ariketa fisikoak egi-naz eta kide artean igaro ditut urteak.

**I Zer irakatsi dizu kartzelako egonaldiak?**
Hemeretzi urteko "psikologiako" kurtsoa egin dut.

**I Nola iristen dira kanpoko berriak kartzelara?**
Iturri ofizialak alde batera utzita, kalean baino hobeto iristen direla esango nuke.

**Nolakoa izan da funtzionarioen portaera?**
Txakurrak toki guztietan txakurrak dira.

**Nola bizi izan dute etxekoek kartzelan egin dituzun urteak?**
Benetan badakite etsaiek nola egin mina gure familiei, beraiek izan dira dispertsioaren eragileak eta senideak gehien sufritu dutenak.

**Nola hartzen zenituen bisitak?**
Zoragarriak ziren.

**Kartzelako lagunak agurtzeko aukerarik izan al zenuen?**
Ez, baina halere, lortu nuen burkideen ateak jotzea eta agurtzea. Burkide asko laga ditut, eta hauen artean Bautista Barandalla izan da nirekin luzaroan egon dena, eta esan nahi dut oso larria dela bere gaixotasuna, horregatik egiten dut dei beragatik borrokatzeko askatasuna lortu dezan, ahalik eta azkan̄en.



**"LIBURU ARTEAN, ARIKETA FISIKOAK EGINEZ ETA KIDE ARTEAN IGARO DITUT URTEAK "**

**I Euskal Herriko egoera politikoak onera egin du azken 19 urteotan?**
Txarrera, batzuen interesagatik.

**1 Jarraitzen al zenuen aktualitate politikoa kartzelatik?**
Dudarik gabe, gu preso politikoak ginen, eta gure helburua Euskal Herria askatzea da.

**Egunotan Ibarretxeren plana dabil ahoz aho. Zer begitantzen zaizu?**
Nik esango nuke plan bakarra Euskal Herria askatzea izan beharko litzatekeela.

**ETAren su-eten berri bat posible al da?**
Erakundeari dagokio galdera horri erantzutea.

**ETAren desagerpena ezagutuko al dugu?**
Bai, Euskal Herria aske izaten denean.

**I Ba al du erremediorik Euskal Herriko egoera politikoak?**
Bai, euskal politikoek euren interesak laga eta Euskal Herriaren alde lan egiten dutenean.

**/ Gai izango al zinateke zure errezeta mahai gainean jartzeko?**
Bakoitzak bere errezeta du, eta gurea argi eta garbi dago. Galdetu diezaiotela herriari.



**"EUSKAL HERRIA ASKE DENEAN DESAGERTUKO DA ETA"**

**1** Elkarrizketa al da irtenbidea? Nortzuen artean?

Bai, Euskal Herria maite duten denen artean.

Zein dira irtenbidea oztopatzen duten osagaiak edo faktoreak?

Nik bi puntu aipatuko nituzke, politiko batzuren konpromiso falta batetik. eta gure aitaren etxea ez maitatzea, bestetik.

Zer egin duzu kartzelatik irtetzean?

Euskal Herria ikusi, nire familia eta lagunen berotasuna jaso.

Zer egiteko asmoa du Iñaki Jaiok etorkizunean?

Lehenengo bizimoduari eutsi. Lan, politika eta maila pertsonalean hemendik aurrera egingo dudana ikusteko dago oraindik, denbora oo gutxi baitaramat kartzelatik kanpo.

**1** Zer moduz zaude ilusioz?

Oso ondo.

Zerbait esan nahi...

Eskerrak eman nahi dizkiet nire ongi-etorrian eta omenaldian izan ziren guztiei, eta salatu herri honen askatasun falta, Udalaren eta Ertzantzaren jokaera eta oztopoak.



*Gabi aurrean ateratako argazkia, guraso eta Gema arrebarekin batera ageri da Iñaki.*



*Iñaki bere arreba Mari Jose (erdian) eia Gemarekin.*

# JOSE JA10,

besteen ahotan

Egoera gogorra da, baina lehen egunak izan zian gogorrenak. Bi bala tiro jaso zitxun hanketan eta gaizki egon zan ospitxalian.Sei hilabete pasa zitxun Bilboko ospitalian eta beste urtebete Carabanchel-eko ospitalian. lehen 6 hilabetietan bi edo hiru poliziez inguraruta egon zan uneoro eta ezin zan berakin berbarik ein, eta gitxiao euskaraz.Bestalde, kartzelako neguko hotzak zian gogorrenak, kalefakzio barik euki baitzitxuen hasieran.



Ona, ez dogu arazorik euki sekula. Bisiten txarrena kilometro mordua egin bihar diala da. Bezperatik urten bihar izaten gendun semia pare bat orduz ikusi ahal izateko.

"Bis a bis" delakuak bi ordukuak izaten dia. Familixakuentzat bakarrik dia eta gela batian berakin egon zintxezke aurrez aurre. Lagunek 20 edo 10 minutu egotia dauke, baina kristal baten bestaldetikan. Astian 3 bisitxa eukitzen zitxuan. Gu hilian bi bider juten ginan.

Ez zan animatzeko premiarik izaten. Sekula ez dot triste ikusi, bera beti guri animuak ematen.

Momentu oso hunkigarrixa izan zan, pozgarrixa, eta elgoibartarrek egindako harreria ere oso ona izan da. Nahiz eta Edzainek ongi-etorrixa zapuztu, tiroka hasi baitzian ikurrinak lurrera botaz eta zapalduz.

# in ormazioa

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 3 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 4 | Etxeberria (Errosario kalean) | Fernandez |
| 5 | Fernandez | Fernandez |
| 6 | Yudego | Yudego |
| 7 | Zabaleta | Zabaleta |
| 8 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 9 | Ibañez | Ibañez |
| 10 | Bidasolo | Bidasolo |

**FARMAZIAK**

**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

Fotero

## *Eusko* *Eusko*

411TOBI1SAK

DONOSTIA-BILBO
Egunero

| | | | |
|---|---|---|---|
| Donostia AMM11 | 5.45 | 06.45... | 20.45 |
| Elgoibar | 07.02 | 08.02.. | 22.02 |

jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA
Egunero

| | | | |
|---|---|---|---|
| Bilbo | 06:00 | 7.00... | 20.00 |
| Elgoibar | 07.23 | 08.23... | 21.23 |

" jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Elgoibar | 07.25 | 08.25 | 10.25... | 21.25 |

Jaiegunetan

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Elgoibar | 08.25 | 09.25 | 10.25... | 21.25 |

## ELGOIBAR

SIGMA (11 — ARRIAGA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 8:00 | 8:10 | 8:10 | 8:20 |
| 9:25 | 9:35 | 9:55 | 10:05 |
| 11:10 | 11:40 | 11:10 | 11:20 |
| 11:20 | 11:50 | 11:40 | 11:50 |
| 12:10 | 12:40 | 12:10 | 12:20 |
| 12:20 | 12:30 | 12:40 | 12:50 |
| 13:10 | 13:20 | 13:10 | 13:20 |
| 13:20 | 13:30 | 18:10 | 18:20 |
| 18:20 | 18:30 | 19:00 | 19:10 |
| 19:10 | 19:20 | | |

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

| | |
|---|---|
| Anbulatorioa .......... | 943 03 26 10 |
| Planning-a ............. | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D YA (anbulantzia) .... | 943 46 46 22 |
| G u rutze Gorria ...... | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak ....... | 943 74 39 36 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak .... | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) .......... | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia .......... | 943 74 08 98 |

**UDALA**

| | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua ..... | 943 74 43 66 |
| Udal Kirol Patronatua | 943 74 44 15 |
| Kultura Zerbitzua .... | 943 74 21 58 |
| Mendaroko Udala ..... | 943 75 61 00 |
| Ongizate zerbitzua .... | 943 74 10 08 |
| Udaletxea .............. | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa ......... | 943 74 13 94 |

**BESTELAKOAK**

| | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra .... | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia.............. | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa ... | 943 74 30 88 |
| Liburutegia ............ | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola ...... | 943 74 21 45 |
| Mintxeta ............... | 943 74 43 15 |
| Parrokia ................ | 943 74 08 42 |
| Postetxea .............. | 943 74 15 47 |
| Gaztetxea .............. | 943 74 35 72 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |

**ADINEKOEN ETXEAK**

| | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

**IKASTETXEAK**

| | |
|---|---|
| Haur Eskola.......... | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) ........... | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola .......... | 943 74 08 79 |
| I M H..................... | 943 74 41 32 |
| Institutua | |
| Arreiturre ........... | 943 74 80 19 |
| Ezenarro (Meka) .... | 943 74 80 19 |
| Ikastola ................. | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastelxea ................... | 943 74 13 31 |

**KOMUNIKABIDEAK**

| | |
|---|---|
| BARREN ............... | 943 74 41 12 |
| El Diario Vasco .... | 943 74 40 73 |
| El Correo Español | 943 74 10 82 |
| Zazpiki irratia ........ | 943 74 34 74 |
| Egunkaria............. | 943 30 02 28 |
| Gara ...................... | 943 31 69 99 |

# 268 ikasle matrikulatu dira aurtengo ikasturtean Heziketa Zikloetan

*IMH eta Herri Institutuan egin daitezke Heziketa Zikloak. Batxilergoa amaitu ostean, jende gehienak Unibertsitate ikasketak egiteko joera dauka, baina badira Heziketa Zikloak egiten dituztenak ere. 2003-2004 ikasturtean 268 ikaslek eman dute izena Heziketa Zikloak burutzeko. Eskalniza desberdinak daude: Erdi Mailako edo Goi Mailako Heziketa Zikloak. Ondorengo tauletan jasa ditugu aurtengo matrikulazio datuak.*



INSTITUTUA

| Erdi mailako Heziketa Zikloak | ikasleak |
|---|---|
| Ibilgailuen Elektromekanika (Auto) | 23 |
| Karrozeria (Auto) | 19 |
| Erizaintzako laguntza osagarriak | 22 |
| Merkataritza | 12 |
| **Goi mailako Heziketa Zikloak** | **ikasleak** |
| Administraritza eta finantzak | 16 |
| Automozioa | 22 |
| Ingurugiro osasuna | 7 |
| **Guztira** | **128** |

| Erdi mailako Neziketa Zikloak | ikasleak |
|---|---|
| Mekanizazioa | 24 |
| **Goi mailako Neziketa Zikloak** | **ikasleak** |
| Proiektu mekanikoen garapena | 42 |
| Mekanizazio bidezko produkzioa | 29 |
| Industri ekipoen mantenimendua | 45 |
| **Guztira** | **140** |

# Leonardo da Vinci programaren barruan Lanbide Hezikhiudt, 200 ikasle baino gehiagok egin dituzte lan praktikak atzerrP'

## Ikaslan Nazioarteko Taldeak prestatzen ditu proiektuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako zentroek hartzen dute parte Leonardo da Vinei programan. Guztira 30 zentro inguru daude programa honen barnean. Ikaslan Nazioarteko Taldea osatzen dute zentro hauek guztiek, eta asteazkenero Elgoibarko Institutuan elkartzen dira, programaren barnean aurkeztuko dituzten proiektuak prestatu eta diseinatzeko.

Duela bi urte jarri zen martxan programa hau, eta dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoko 200 ikasle baino gehiagok egin dituzte lan praktikak atzerrian. Finlandiatik Portugalera eta Poloniatik Irlandara bitartean dauzkaten bazkideek praktika hauen kalitatea bermatzen dute.



*Ikaslan Nazioarteko Taldearen bilera batean ateratako argazkia.*

# San Migel jaiak Aiastia auzoan

## Jose Ramon Orbegozok irabazi zuen Euskal Herriko Arraza Libreko Artzain Txakur Txapelketa Aiastia auzoan

***Aiastia** auzoak San Migel jaiak ospatu zituen pasa den asteburuan. Auzotarrek hainbat ekiniza antolatu zituzten urtero legez eta jendeak izan zuen non aukeratu. Barixakuan gazteentzako ekintzak izan ziren nagusi disko festa, poteoa bizikletan eta goizaideko striptease-arekin, baina zapatuan Artzain Txakur Txapelketa **izan** zen ekintzarik nagusiena.*





Jose Ramon Orbegozo, Arantzazuko frailea, nagusitu zen Euskal Herriko Arraza Libreko Artzain Txakur Txapelketako finalean. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako txapeldunek eta txapeldunordeek hartu zuten parte lehiaketan. Peio Pagadizabal aiarrak, gainera, bi txakurrekin hartu zuen parte, bera baita Gipuzkoa eta Euskal Herriko txapelduna. Oraingoan, ordea. Arantzazuko frailearen aginduetara aritu zen "Alai" txakurraren aurrean men egin behar izan zuten partehartzaile guztiek. Oñatiarrak 2 puntu eskaseko aldea atera zion bigarren sailkatuari, Nafarroako txapelduna den Oscar Martinezi, alegia. Iazko txapelduna, Peio Pagadizabal, hirugarren postuan sailkatu zen. Artzain guztiek border-collie arrazako txakurrak erabili zituzten eta frogatuta geratu zen txakurrok artzantzarako dituzten dohainak, lan guztiak txukun betetzeaz gain, lehia izugarri estua izan baitzen.

### Pilota txapelketa **eta** idi-demak

Artzain eta txakurrez gain, domekan idi demak izan ziren frontoi ondoko probalekuan. Bertan, Soarte elgoibartarra nagusitu zen. Soarteren idi pareak 40 plaza egin zituen, Iketza markinarraren idi pareak baino 5 plaza gehiago. Etxeberriko Eskutusuloren idi parea ez zen oso fin aritu eta 16 plazako marka egin zuen, irabazlearengandik oso urrun geratuz.

Azkenik, Auzoko Bikoteen Arteko Pilota Txapelketa jokatu zen San Migel egunean, irailaren 29an. Bertan, German Telleriak eta Unai Loiolak 22 eta 15 irabazi zieten Angel Ibarluzeari eta Jon Idoetari. Auzotarren afariarekin eta Gardoki taldearen erromeriarekin eman zieten amaiera aurtengo San Migel jaiei auzotarrek.





## Futbola, 2003/2004 denboraldia

# C.D Elgoibar Elkarteko taldeen aurkezpena

***C.D. Elgoibar Elkarteak herritar eta futbol zale asko batzen ditu. Guztira 8 talde dira Elkartearen ardurapean daudenak, alebinak eta aurten sortu berri den futbol 8-ko nesken taldea kontutan hartuz. Aste honetan erregional mailako taldea, alebinak eta kadeteak aurkeztuko dizkizuegu. Datozen asteotan gainontzeko taldeak eta Pedrusko futbol taldearen txanda iritsiko dira.***



## 1. Erregionala

Tente, ezkerretik eskumara: Pedro Santiago (entrenatzailea), Iban Eizagirre, Ion Larrariaga, Ivan Garcia, Asier Mujika, Asier Atrio, Ibai Idoeta, Unai Kanalaetxeberria, Mikel Armendia, David Morais, Andres Dorta, Imanol Larrañaga (2. entrenatzailea), Iñigo Otero eta Andoni Ulazia (delegatua).
Makurtuta, ezkerretik hasita: Ander Zulaika, Fran Huidobro, Abel Hemandez, Eneko Etxeberria, Ibai Etxabe, Asier Jauregi, Antton Mendizabal, Xabat Colina, Asier Elustondo eta Jabi Gonzalez.
Argazkian falta dira: Aitor Gurrutxaga, Domeka San Sebastian, Jon Garcia eta Mikel Bilbao.

## Kadeteak

Tente, ezkerretik eskumara: Jorge Feijoo (entrenatzailea), Andoni Lersundi, Ander Izagirre, Unai Arce, Egoitz Zulaika, Sergio Martinez, Asier Urkidi, Mikel Arraiz, Gorka Otero, Jokin Muñoz, Patxi Loiola, Igor Ulibarri, Josu Abad eta Andres Muñoz (entrenatzailea).
Makurtuta, ezkerretik hasita: Mikel Elustondo, Ander Martin, Joel Lizundia, Borja Tornos, Jon Gabilondo, Unai Herrero, Aitzol Arrizabalaga, Andoni Gomez eta Aitor Arruabarrena.
Argazkian falta da: Xabi Elorza.





## Alebinak

Tente, ezkerretik eskumara:
Iker Oñederra, Haritz Larrañaga, Illart Urain, Jon Agirrebeña, Jon Casado, Ion Lago, Aitor Goikoetxea, Ion Arrese, Edu Ibarzabal, Jordan Galindo eta Jon Ortega. Makurtuta, ezkerretik hasita: Ander Ortega, Ibon Larrea, Joseba Gabilondo, Asier Izagirre, Asier Carrara, Jon Ander Alvarez, Ander Arambarri, Julen Konde eta Unai Zubiaurre. Argazkian falta dira: Iñigo Plazaola eta Gerico Carvallo.

# Iban Iriondo Debarrak irabazi du Elgoibarko Ehiza Xeheko Txapelketa

## Lehen 3 sailkatuek Eskualdeko Txapelketan hartuko dute parte

Kanpotar bat nagusitu da aurten La Union Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatzen duen Ehiza Xeheko Txapelketan. Elkarteko bazkide den Iban Iriondo debarrak jantzi zuen ehiztari onenaren txapela pasa den irailaren 27an, Urnobitzan jokatu zen txapelketan. "Dasch" txakur leialaren laguntzaz zazpi faisai bota zituen txapeldunak. David Conde elgoibartarrak, iazko txapeldunak, beste horrenbeste bota zituen, baina denbora gehiago behar izan zuenez bigarren postuarekin konformatu beharrean aurkitu zen. Sigmakoak txakur berria izan zuen lagun, "Yuca", eta honek ere aurrekoak adina trebezia zuela frogatu zuen. Igor Lecertua sailkatu zen hirugarren postuan. Bost faisai bota zituen honek "Rush" txakurraren laguntzaz. Guztira 60 faisai askatu zituzten antolatzaileek eta 39 bota zituzten ehiztariek. Lehen hiru sailkatuek Eskualdeko Ehiza Xehe Txapelketan hartuko dute parte zapatu honetan, urriaren 4an, Urnobitza mendian berriz ere. Eibar, Elgoibar eta Mendarokoko ehiztari onenek hartuko dute parte bertan, herri bakoitzeko hiru onenek. Gipuzkoako Txapelketarako sailkapena egongo da jokoan.



*60 faisai askatu ziren eta 39 bota zituzten ehiztariek.*

# Gorka Garatek bigarren postua lortu zuen Asteasuko Motokros Txapelketan

Txusko Moto Klubeko Gorka Garatek bigarren postua lortu zuen Asteasuko 3. Motokros Txapelketan pasa den irailaren 21ean. Senior mailan hartu zuen parte Gorkak, 250 zentimetro kubikotik gorako motorrentzako kategorian, hain zuzen ere. Bestalde, sailkapen orokorreko laugarren postuan amaitu du Euskadiko Motokros Txapelketan. Guztira 6 proba izan ditu txapelketak. Duela bi urte bigarren postua eskuratu zuen elgoibartarrak txapelketa honetan, baina aurten mailak asko egin duela gora aipatu digu, "kanpoko jendia Euskadin federatu da eta txapelketaren mailak gora egin du, kalitatezko jendea baita". Motor berria estreinatu du aurten Gorkak eta oraindik makina berrira ez dela ohitu aitortu digu, "KTM 450 lau denborako motorra daukat eta lehenago naukan bi denborako motorrarekin alderatuz prestazio hobiak eskaintzen ditxu, baina motor berrira ohitxu behar naiz lehenago".



## EMAITZAK

**Futbola**

Aretxabaleta 1 - Haundi 1 (Pref.)
Elgoibar 1 - Zarautz 1 (1. Erreg.)
Elgoibar 0 - Eibar 2 (Jub.)
Elgoibar 8 – Aretxabaleta 5 (Aleb.)
Elgoibar 2 - Touring 1 (Inf.)
Bergara 2 - Elgoibar 0 (Neskak)
Antzuola 2 - Elgoibar 5 (Neskak F-8)
Antzuola 0 - Elgoibar 10 (Kad.)
Ilintxa 2 - Pedrusko 0 (1. Erreg.)

## AGENDA

**Futbola,** Mintxetan

**Zapatua, 4**
**11:30** Elgoibar - Zumaiako (Neskak F-8)
**16:30** Haundi -Aloña-Mendi (Pref.)
**Domekia, 5**
**10:00** Elgoibar - Anaitasuna (Neskak)

## Arabar Errioxara izango da Morkaikoren hurrengo irteera urriaren 18an, zapatuan

Morkaiko Mendizale Elkartearen hurrengo irteera Arabar Errioxara izango da. Urriaren 18an, zapatuan, aterako da autobusa Plaza Handitik, goizeko 7:30ean. Autobusa Sierra Kantabria deritzon mendilerrora abiatuko da eta behin hertan, "Cruz del Castillo" izeneko mendira igotzeko asmoa dute antolatzaileek. Ibilaldi honek gosea eta egarria sortarazi ditzakeenez, inguruetan horren ezagunak eta preziatuak diren ardotegi batean hitzartu dute bazkaria Mendizale Elkartekoek. Gosea eta egarria ase ostean, iluntze aldean itzuliko da autobusa Elgoibarrera. Hau guztia 25 euroren truke bazkideentzat eta 30 euro bazkide ez direnentzat.

# merkatu txikia

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Lana

ESKAERA

♦ Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. v 626 91 49 04

• Neska, umeak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Baita dendan lan egiteko. v 943 74 20 50/679 23 76 11 (Maria)

• Neska gaztea edozein lan egiteko prest. v 665 20 18 24 (Ainhoa)

• Neska gaztea asteburuetan lan egiteko prest. tr 943 74 07 99

♦ Emakumea goizez nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Ir 609 409 606 (Sol)

• Emakumea goizez nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. -v 660 69 53 03 (Marta)

♦ Neska gazteak edozein lan egiteko prest. Euskaraz badakigu, langileak gara, eta oso arduratsuak. v. 669 65 28 28

♦ Emakumea etxeko lanak egiteko prest. tr 653 71 53 92

♦ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. 75° 943 74 30 56

• Mutila garbiketa lanak egin, kartelak pegatu edo buzoneo lanak egiteko prest. zi 943 74 44 63 (Andres)

• Neska euskalduna igande eta jai egunetan gaixoak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. v 616533796

• Emakumea umeak zaintzeko prest. v 677 85 82 44

♦ Emakumea etxeko lanak edo garbiketak egiteko prest. Egun solteak. v 943 74 22 01

♦ Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Gauez edo asteburuetan. Esperientziaduna. v 627 61 97 82

• Emakumea orduka nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. v 686 60 02 39

• Emakumea goizez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. v. 667 030 717

Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. v 943 74 35 05 (Justa)

ESKAINTZA

♦ Egun solteetan 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. v 943 74 18 46 (20:00etatik aurrera)

• Estetizista behar da Elgoibarren. 1T 943 74 43 03

• Kamareroa behar da. tr 943 74 42 65

• Eguneroko menuak prestatzen jakituna behar da astelehenetik larunbatera. 14 soldata. tr 635 71 36 73

• Astean zehar lan egiteko kamareroa behar da. ▪ 699 183 299

Umeak zaintzeko emakumea behar da. tr 646 65 37 83/ 943 74 12 24

♦ Barrarako kamareroa behar da.. v 943 74 31 17

♦ Merkadiloan lan egiteko neska behar da. Tr 626 05 43 16 (Mari Jose)

• Tabernarako mutila eta sukalderako emakumea behar dira. vi 943 74 04 90

• Kamareroa behar da. tr 943 74 42 65

• Neska edo mutila behar da tabernan lan egiteko. Astegunetan arratsaldez eta asteburuetan txandaka. v 943 74 08 67/943 74 28 97

♦ Pintura enpresak pintoreak behar ditu. v 943 74 15 52/ 606 43 11 19 (9:00-13:00)

Mendaroko kafetegirako kamarera behar da. a 656 73 28 20

♦ Barrarako kamarera behar da. irr 615 72 34 80

♦ Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. tr 676 29 49 35

• Tabernan lan egiteko neska euskalduna behar da. v 943 74 31 17

• Esperientziadun kamareroa behar da asteburuetan barran lan egiteko. v 687 05 17 89

## Partikularrak

Ingelesezko eta euskarazko klase partikularrak emateko pertsona behar da. 1-2 pertsonentzako. DBH2 maila. tr 699 820 820

• LH4ko umeari klase partikularrak emateko pertsona arduratsua behar da. Astelehenetik ostegunera. v 626 23 75 70

Ingelesezko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia. e 943 74 31 67 (Nekane)

Ingelesezko klase partikularrak ematen dira Elgoibar eta Mendaron. e 943 74 29 84/943 75 52 09

• Frantseseko klaseak ematen dira. Maila guztiak. v 943 74 42 73

## Salerosketak

• Hyundai Accent 1325 autoa salgai. Hiru ate, irratia eta CDa, balazta argia duen spoilerrarekin. 7 urte, 110.000 km. Egoera oso ona. 3.000 euro. v 943 74 44 46

♦ Fagor berogailua salgai. Termostatoarekin, 2000 w. 40 euro. .zr 943 74 44 46

♦ Scooter Daelin NSII 125cc. salgai. 8.000 km. v. 678 80 35 35 (Gerar)

Apaindegia traspasatzen da Elgoibarren. tr 943 74 16 33 (20:00etatik aurrera)

• Seat Cordoba salgai. 110 zaldi, TDI. Llantekin. 98koa. v 669 17 95 59

• Ford Sierra 2000i salgai. SS-AH. Egoera onean. tr 650 84 06 20

• Audi 100, 2.3 E salgai. SS-AS. 167.000 Km. 3.000 euro. v- 679 71 80 16

• KTM 250 Exc salgai. 2002koa. Modelu amerikarra. Kaskoa opari. Merke. Tr 943 74 39 56

• VVV Golf 1.8 gl. salgai. 92.000 Km. SS-AN. 4.000 euro negoziagarriak. .11° 620 44 71 28

• Opel Vectra DTI, 2.2 sport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektrikoa, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko opel garantia. tr 616 26 62 12

♦ Audi A4 salgai. 97koa. TDI, 110CV. Zilar kolorekoa, beti garajean. v 616 26 62 12

• Scooter 49 cc. motorra salgai. Egoera ezin hobea, tubo eskape berria, beti garajean egon da. v 943 74 34 89

♦ Artzai txakur alemaniarrak salgai pedigree-arekin. mr 635 71 54 31

• Jilgero mixtoa salgai. Eskuz landua eta hezitua. int 625 70 80 42

## Etxebizitzak

• Etxebizitza salgai Urasandin. 3 logela, sala, sukaldea, 2 komun. tr 943 74 18 18

♦ Pisua alokatzen da Urasandin. v 661 79 04 52

Pisua hartuko nuke alokairuan. Tr 649 10 01 85

• Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar eta Durango artean. tr 943 74 05 35

• Etxebizitza salgai San Pedro kalean. 3 logela. Guztiz eraberritzeko. 6.500.000 pta. 1r 686 07 85 96

♦ 90m$^2$ko etxebizitza salgai Arregitorren. Guztiz berritua. 3 logela, 2 bainugela, sala eta sukaldea. Bi balkoi eta trasteroa. tr 616 78 51 20 (16:00etatik aurrera)

*Apartamentua alokatzen da Luz Ardidenen eski denboraldi osorako. ai 615750286

• Baserria edo txaleta erosiko nuke Mendaron. v 615 74 50 72

♦ Pisua salgai Mendaron. Egongela, sukaldea, 2 logela, komuna eta balkoia. tr 606 86 10 07

♦ Pisua salgai Urasandin, N'20-4.F. Tr 943 74 17 01

♦ Etxebizitza salgai. 98m$^2$. tr 617 96 92 21

Pisua alokatzen da Donostian (Amaran) ikasleentzat urritik ekainera. v 639 97 19 77

• Etxebizitza salgai herri erdian. 3 logela, altzariekin, berritua. Bizitzera sartzeko moduan. a 661 42 60 77

## Garajeak

• Garaje itxia alokatzen da Ikastola ondoan. Tr 943 74 28 24

♦ Garaje itxia alokatzen da Madalan. 12. 696 96 40 69

♦ Garajea salgai Leku Ederren. 1T 6 5 9 77 1 3 63

• Garajea salgai Pedro Muguruza 11n. 'rr 649 91 31 83

• Garaje marraduna salgai Pista Beltzean. v 943 74 16 88

• Garaje marraduna alokatzen da Leku Ederren. 97 943 74 01 97

Garaje alokatzen da San Roken. v- 943 74 14 36

## Bestelakoak

• Madalako etxe berrietan trasteroa alokatzen da. tr 605 77 34 53 (20:30-22:30 bitartean deitu)

• DBH 1 eko ikasleek eskola kirolerako entrenatzailea behar dute. v 619 12 74 74 (21: 00-22:00 bitartean deitu)

♦ Erlojua galdu nuen igerilekuan. Casio markakoa, beltza. v 943 74 32 56

• Norbaitek katu nabar bat galdu badu IMHko sarrera eta inguruetan begira dezake, hiru egun daramatza bertan bueltaka.

## Agurrak



• Zorionak **Danel,** igandean urtebe beteko duzulako. Familia guztiaren partez.

♦ Zorionak **Ane, 15** urte egin dituzulako. la gehixo ligatzen dozun zuk dakizun mutil horrekin.

*Zorionak **Mikel,** 12 urterekin ia gehixo ligatzen dozun.



• Zorionak **Piliri,** hilaren 6an urteak egingo dituelako. Familiakoen partez, ondo pasa eguna.



• Zorionak **Malen,** hilaren 7an 2 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, aiton-amonen partez.



* Zorionak Markel, gaur, urriak 3, urtebete egin duzulako. Haizea eta familiako guztien partez muxu handi bat.



*Zorionak **Ekaitz,** hilaren 6an 5 urte beteko dituzulako. Etxekoen eta bereziki, zure anaia losuren partez.



*Zorionak munduko **aita eta senar onenarentzat.** Zure emazte eta alaben partez.



*Zorionak **Eva,** urriaren 2an 12 urte bete zenituelako. Muxu handi bat zuretzat. Ondo pasa eguna!



♦ Zorionak **Aidari,** hilaren 6an 2 urte beteko dituelako. Gurasoen eta bereziki, Tamararen partez. Ondo pasa!



*Zorionak **Jose Manuel,** gaur, urriak 3, 8 urte bete dituzulako. Familiakoen eta bereziki, zure anaia Aitor eta Ikerren partez.



*Zorionak **Javier Urbietari,** bihar, urriak 4, urtebete egingo duelako. Aiton-amona eta osaba-izeben partez.



• Zorionak Ioritz, gur urriak 3, 6 urte haundi bete dituzulako. Etxekoen partez, ondo pasa.



• Zorionak **Iria** eta **Jolcin,** urriaren 3an eta 8an, 14. eta lehenengo urtebetetzea ospatuko dituzuelako. Zuek zarete gure bizipoza!



gazte informazioa

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Astearte-ostiral: 16:00-20:00*

### BEKAK

**Ikasketa-laguntzak**

Eusko Jaurlaritzak unibertsitate-mailakoak ez diren ikasleak eskolaratzeko 2003/2004 ikasturterako ikasketa-laguntzak eskaintzen ditu, hezkuntza berdintasun-egoera lortzera bideratuak. Irakaskuntza materialerako, joan-etorrietarako edo ostaturako, eta jantokirako dirulaguntzak. Epea: urriak 15

**Ikerketa**

Eibarko Udalak botanikari eta mendizaletasunari buruzko ikerkelanak burutzeko Juan San Martin bekarako deialdia egin du. Deialdian parte hartu nahi duten norbanakoek nahiz taldeek, burutu nahi duten lanaren proiektua aurkeztu beharko dute. Irabazleak 9.016 euro jasoko ditu eta 12 hilabeteko epea izango du lana amaitu eta entregatzeko. Epea: urriak 10

**Unibertsitateko goi-mailako tituludunak**

Caja Madrid fundazioak Madrileko London School of Economies eskolak datorren urtean emango dituen diziplina arteko mintegietako batean parte hartzeko 2.040 euroko dirulaguntzak eskaintzen ditu. Baldintzak: unibertsitateko goi-mailako titulua eta ingeles maila altua izatea. Epea: urriak 17

### IKASTAROAK

**Azpeitia**

Azpeitiko GIBek urriaren hirugarren astetik aurrera hasi eta abendura bitartean iraungo duten ikastaro ezberdinak antolatu ditu. Besteak beste, Sukaldaritza, Chi-kung, Dantza Afrikarrak, Txalaparta eta Dantza Garaikidea irakatsiko dituzte. Epea: plazak agortu arte

**Langabetuak**

Euskadiko Prestakuntza Fondoak %100ean diruz lagundutako Automaten Teknikari izateko lkastaroa antolatu du langabezian dauden pertsonentzat. Ikastaroa Errenterian izango da urriaren 2letik martxoaren 25era. Epea: urriak 13

### LEHIAKETAK

**Ipuinak**

Ereintza Kirol eta Kultur Elkarteak XXIII. "Errenteria Hiria" ipuin-lehiaketa antolatu du. Partehartzaile bakoitzak 3tik 8ra folioko luzerako nahi beste ipuin aurkez ditzake. Bi modalitate: euskara eta gaztelania. 26 urtetik beherako onenarentzako sari berezia izango da. Epea: urriak 31

**Oporretako argazkiak**

Ermuko Torreta Etxeak "2003ko oporrak" argazki lehiaketa antolatu du. Bertan, 15 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte, munduan zehar eginiko edozein bidaiatan ateratako kolorezko argazkiak aurkeztuz. Epea: urriak 9

**Arte Plastikoak**

Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Fundazio Nagusiak Arte Plastikoetako VI. Gazteen Saria antolatu du. Bertara gai eta teknika libreko pintura, eskultura eta marrazki-lanak aurkez daitezke. Irabazleak 6.000 euro jasoko ditu sari gisa eta 12.000 euro obraren truke. Epea: urriak 13

### LANA

**Gizarte-langileak**

Logroñoko udalak gizarte-langile plaza bi eskaintzen ditu oposizio-lehiaketa aske bitartez. Baldintzak: Gizarte Laneko unibertsitate-diplomatua edo Gizarte Laguntzailea izatea. Epea: urriak 9

# agenda

2003-X-3

## 3 BARIXAKUA

17:30 BURUHANDIAK
Errosario kaleko jaiak

18:30 GORRITI ETA BERE ANIMALIAK
Errosario kaleko jaiak

19:00 BURUHANDIAK ETA BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIAK
Errosario kaleko jaiak

21:30 AFARIA
Kultur Etxeko sotoan
Errosario kaleko jaiak

22:30 DIAPOSITIBA EMANALDIA
Gaia: Oporrak Mexikon
Egilea: Sergio Fernandez
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte Asanblada



## 4 ZAPATUA

9:00 ESKUALDEKO EHIZA XEHE TXAPELKETA
Urnobitza mendian

19:30 KONTZERTUA
Taldea: "Legen Beltza"
Gaztetxean
Sarrera: Doan
Antolatzailea: Gazte Asanblada



## 10 BARIXAKUA

19:00 VIII. KOKOE KOMIKI LEHIAKETA
Erakusketaren inaugurazioa
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Antolatzailea: Kokoe Komiki Elkartea
Urriaren 19ra arte




### ERROSARIO KALEKO .J1 .

**URRIAK 5, domekia**
18:00 Errosario eta "Guztiz donearen" erakusketa Parrokiako abesbatzak lagund uta.

**URRIAK 7, martitzena**
19:00 Errosario kaleko hildakoen omenezko meza parrokian.
Ondoren, Errosarioko Ama Birjinaren irudiaren aurrean otoitza eta salbea

## ZINEA




### "La leyenda del pirata Barba Negran

Zuzendaria: Gerhard Hahn/Tony Power.
Denontzat
Hiriko museoa bisitatzen ari diren bitartean, Alex, Max eta Califasek urrezko ontzi bat aurkituko dute. Gidariaren azalpenen arabera Aztekar kulturari dagokion antzinako altxor preziatua da. Nahi gabe izkutuko botoi bat sakatu eta XVIII. mendera egingo dute atzera denboran. bat-batean itsasuntzi espainiar bateko biltegian daudela konturatuko dira Karibe itsasoaren erdian. Bizi beharko dituzten abentura eta arriskuak ez dira makalak izango, batez ere Bizarbeltz pirata maltzurrari aurre egin beharko diotelako.

2003-X-3

## IKASTAROAK

**Margo artistikoa**

Egur Tailerrak margo artistiko ikastaroa eskainiko du urriaren 13tik 31ra bitartean. Astelehenetik ostiralera izango dira klaseak 18:00etatik 20:00etara. Izen ematea Aita Agirre Plaza, erdiko atea, 2. pisua helbidean egin daiteke (18:00etatik 20:00etara)

**Sevillanak eta Cubako dantzak**

Haizea Emakume Taldeak antolatuta Sevillana eta Cubako dantzen ikastaroa izango da urrian. Ostegun edo ostiraletan izango dira klaseak 15:00etatik 16:30etara, Merkatu plaza goian. Informazio gehiago jaso edo izena emateko Pitxintxu dendara joan.

**Lora lehorrez egindako eskulanak**

Lora lehorrez eskulanak nola egin irakatsiko da Haizea Emakume Taldeak antolaturiko azken ikastaroan. Urriaren 14an, martitzenean, hasiko da eta 3 hilabetetako iraupena izango du. Asteartero, 15:00etatik 16:30etara izango dira klaseak Pedro Muguruzako ikastetxe zaharrean duten lokalean. Informazio gehiago Pitxintxu dendan.

**Nagusilan**

Nagusilan eta Elgoibarko Jubilatu Boluntarioek antolatuta, emoziozko adimenaren inguruko ikastaro laburra hasiko da urriaren 7an, martitzenean. 12 orduko iraupena izango du eta izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko 943 74 13 73 telefonora deitu daiteke.

## KINTOAK

**1938an jaiotakoak**

Aurten 65 urte betetzen dituzten elgoibartarrek, behar bezala ospatu nahi dute urteurrenena. Hau dela eta, datorren urriaren 18an, zapatuan, honako egitaraua prestatu dute: 12:30ean elizkizun San Bartolome parrokian. Jarraian taldeko argazkia aterako dute. 14:30ean bazkaria eta dantzaldia Sigma jatetxean. Ospakizuna antolatu ahal izateko, bazkarira etorri nahi duenak 60 euro sartu beharko ditu Caja Laboral-Euskadiko Kutxaren kontuan: 3035 0007 21 007 1029559.

**1942an jaiotakoak**

1942. urtean jaiotakoek kinto bazkaria ospatuko dute urriaren 25ean, zapatuan. Sigma jatetxean izango da bazkaria 14:15ean. Joan nahi duenak 30 euro sartu beharko ditu urriaren 18a baino lehen ondorengo kontu zenbakian: 3035 0007 25 007109319 (Euskadiko Kutxa). Urriaren 10etik 18ra bitartean sartu ahal izango da dirua, goizeko 8:30etik 14:00etara bitartean.

## KONTIIRTUAK

**Kontzertuak**

Mendaroko Udalak antolatuta Sorkun abeslariak eta bere taldeak kontzertua eskainiko dute urriaren lln, zapatuan, Mendaron. Herriko Enparantzan izango da kontzertua eta sarrera doan izango da. Gaueko 23:00etan hasiko da saioa.

## DIAPOSITIBA ENIANAUMAK

Mexiko

Sergio Fernandez elgoibartarrak Mexikon zehar egindako bidaiaren diapositiba emanaldia ikusi ahal izango da gaur, urriak 3, Gaztetxean. Saioa gaueko 22:30ean hasiko

## 1110 zine

KARTELDEGIA

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**"A todo gas 2"**

3, barixakua: 22:15

4, zapatua: 19:30-22:15

5, domekia: 19:30-22:15

6, astelehena: 22:15

**"La leyenda del pirata barba negra"**

5, domekia: 16:30

**"Se monto la gorda"**

10, barixakua: 22:15

**EIBAR, Unzag**

**"Dos polmas rebeides"**

3, barixakua: 19:30-22:15

4, zapatua: 17:00-19:30-22:30

5, domekia: 17:00-19:30-22:30

6. astelehena: 19:30-22:15

7. martitzena: 19:30-22:15

8, eguaztena: 19:30-22:15

**IBAR, Rialto**

**"La pe va.sea"**

3. barixakua: 19:30-22:15

4, zapatua: 17:00-19:30-22:15

5. domekia: 17:00-19:30-22:15

6. astelehena: 19:30-22:15

7, martitzena: 19:30

8, eguaztena: 19:30

3ARRENek ez du gerta litezkeen ,



## "A todo gas II"

N

**Zuzendaria: John Singleton.**

**Antzezleak: Paul Walker, Eva Mendes, Devon Aoki. (+13 urte)**

Zorte txarreko polizia bat da filmeko protagonista. Ezin dio ihes egin abiaduraren inrikari eta FBIko sekretupeko ikerketa bat zapuztuko du abiadura eta lasterketek sorrarazten dioten zirrarari eutsi ezin izanagatik. Urte batzuk beranduago, beste hiri batean bizi da eta bertako poliziek iraganeko akatsak zuzentzeko azken aukera bat eskainiko diote. Negozio gizon ustel eta arriskutsua atzematea izango da bere eginbeharra. Honi ere abiadura eta luxuzko autoak gustatzen zaizkio.

2003 -X- 3



Aste honetako erretratu zaharra herriko atletismo zaletu batek laga digu. Argazkia 1963. urtean San Lorentzoko taberna aurrean aterata dago. Erretratuan azaltzen diren gazteak herriko eta inguruko atletismo zaleak dira. Noizean behin bazkariren bat egiteko elkartzen ziren, eta egun honetan Elgoibarren egitea tokatu zen. Kanpotarrak ez ditugunez ezagutzen, elgoibartarren izenak gogoratuko ditugu.

Goiko ilaran, zutik bosgarren lekuan Inazio Izagirre (Upai) (t), hainbat aldiz Espainiako txapelduna izandakoa pisu, disko... jaurtiketan.

Bigarren ilaran zutik ezkerretik hasita lehenengoa Valentin Azpitarte (t), bigarrena Jesus Lizarralde (t), bosgarrena Javier Azpitarte (t), jabalina jaurtiketan Espainiako txapelduna izandakoa, seigarrena Jose Rezola (t), Elgoibarko alkate ohia, zortzigarrena Juanito Landa (t), luzera jauzian Gipuzkoako txapelduna izandakoa eta azkena Jose Gabilondo (t).



*ESKERTZA*

*2003ko irailaren 27an, 89 urte zituela hil zen*
*LUCIA LARRAÑAGA BASTARRIKAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*I. URTEURRENA*

*2002ko urriaren 3an, 84 urte zituela hil zen*
*MARTINA SANTOS SANTOSen oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da*
*Parrokian, larunbatean, urriak 4, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



TOLETXE

## Larunbatetik aurrera egunero zuekin!

Ospatzeko "Peche festa" egingo dugu

opariekin, zozketekin...

*zatoztepijyairall*

BERRI




San Frantzisko 25, behea

Tel.: 943 74 42 65







San Frantzisko 60, behea

Tel.: 943 74 01 93

# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** esku dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria !



**ORDUTEGIA**

1 0:00etatik-12:30era

1 5:00etati k-20:30era

**San frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

.40 1Fr

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

**J.lustondo,s1**

EDARI BANATZAILEAK

# Elustondok aholkatuta



7Sada7ano 2)avid o7enc, eta nala77oako /14a7qu& de Valca7tos a7do o77i_ak

.9diaquez, ⁽Z)avid 714(nekto eta SelTowo ⁄47aco u7teko a7do 6eltzak






Sild4741ʻ1 o ˋ- ʻ1Vitd o7C1-to eta nalai7oako 714a7que's de Valca7lcs a7do txu7ialz

Zavid o7eno eta 4447ques. de Vatca7los k7iantzak



- Denominazio gabeko Errioxako ardoak
- Errioxako ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Jumes Serra", "Faustino", "Martinez", "Juve Camps"...
- Orujoak / Afilador orujoa
- Getariako Aizpurua txakolin freskoa
- Kontserbak


*San Rake, 32 - 34 (Instituto parean)* *Tet. 943 74 09 92*